



KANBAWZA TAI NEWS | AFP



IKUSMIRA

ESTATU KOLPEAK MYANMARREN GORRIZ TINDATUTAKO KALEAK

Aung San Suu Kyiren gobernuaren kontra militarrek otsailaren 1ean emandako estatu-kolpea eta ondorengo errepresioa salatzeko Rangunek hainbat kale eta errepide gorriz tindatu zituzten. Preso Politikoen Laguntzarako Elkartearen arabera, 570 pertsona hil dira errepresioaren ondorioz eta 2.728 atxilotuta daude.

Desobedientzia zibilaren aldeko mugimenduari sostengua ematea leporatuta, batzorde militarrek kazetarien, abeslarien, komikilarien, aktoreen kontrako atxiloteta aginduak argitaratu ditu orain kontrolpean dituen komunikabideetan. Azteazkenean bertan, militarrek hamaika zibil hil zituzten manifestazio baten kontra tiro egin ostean. Nazio Batuetako ikertzaileak Myanmarren izan dira aste honetan. Bertan, «gobernu zibilak» giza eskubideen urraketen 1.800 frogak eman zizkien. Errepresioa ez da gaurko kontua herrialdean, non bereziki gogorra izan den gutxiengo etnikoen eta horien artean apatridak diren rohingyen kontrako jazarpen bortitza. A. Lertxundi